



# Unitate Didaktikoa

## Ikasgai kurrikularretan aplikatzekoa

ZERUERTZ. HEZKUNTA ETA SENTSIBILIZAZIO INTERKULTURALA DBHKO IKASLEENTZAT

# Geografía eta historia

01. Datu orokorrak
02. Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarriko jakintzak.
03. Jardueraren deskribapena
04. Baliabideak eta materialak



ZERUERTZ



# Datu orokorrak

**TITULUA:** Migrazio-prozesuak aztertzen

**ETAPA:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**ZIKLOA:** 2. zikloa

**DENBORALIZAZIOA:** Jarduera hau egiteko, ikasgelan 2 lan-saio egin behar direla uste da (1. Zereginaren sarrera eta prestaketa; 2. Bateratze-lana). Horri gehitu beharko zaio ikasgelatik kanpo elkarriketa planifikatu eta egiteko behar den denbora, ikasleek beraiek balioetsitako premien arabera zehaztuko dena.

Jarduera hau ikasturtean zehar egin daiteke, gai horri esleitutako beste zeregin batzuekin batera.

## JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

- Migratutako pertsonen elkarriketak egitea beraien jatorrizko herrialdeei, kulturei, bizi-ohiturei eta migrazio-prozesuei buruz.
- Migrazio-prozesuetan eta harrera-historietan inplikaturako faktoreak aztertzea.
- Historian zehar migratutako pertsonen aurrez aurre izan dituzten erronkei buruzko azterlana, bai eta pertsona horiek gaur egun arte izan duten bilakaerari buruzkoa ere.

## HELBURUAK

- Pertsonak historian zehar migrazio-prozesuak hastera bultzatzen dituzten faktoreak ezagutzea.
- Migratutako pertsonen enpatia eta entzute aktiboaren garrantzia hausnartzea.
- Migrazio-fluxuen ereduak eta joerak identifikatzea, oro har.
- Migratutako pertsona bati elkarriketa bat egitea migrazio-prozesuak aztertzeko, geografiaren eta garaiaren arabera desberdintasunetan eta antzekotasunetan arreta jarrita.

ZERUERTZ



# Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak

## FUNTZESKO KONPETENTZIAK

- Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)
- Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa (KPSII)
- Konpetentzia Digitala (KD)
- Herritar Konpetentzia (HK)
- Ekimenerako Konpetentzia (EK)
- Kulturaren Kontzientzia eta Adierazpenerako Konpetentzia (KKAK)

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**2.KONP.ESPE.:** Gaur egun garrantzitsuak diren arazo geografiko, historiko eta sozialei buruzko produktu propioak arakatzea, argumentatzea eta sortzea, tokikotik globalera jardunez, helburua izanik pentsamendu kritikoa garatzea, desberdintasunak errespetatzen dituen eta laguntzen duena norberaren identitatea eraikitzen eta ondare komuna aberasten.

**2.1.EBALU.IRIZP.:** Gizarteari eragiten dioten arazo nagusiak identifikatzea, baloratzea eta horiekiko interesa erakustea, jarrera kritikoa eta proaktiboa lagun.

**2.3.EBALU.IRIZP.:** Ahozko azalpenetan, idatzizko testuetan eta beste produktu batzuetan modu egokian txertatzea eta erabiltzea geografiarekin, historiarekin eta gizarte zientzietako beste diziplina batzuekin lotutako terminoak, kontzeptuak eta gertakariak, planteamendu originalak eta sormenezko proposamenak eginez.

**2.4.EBALU.IRIZP.:** Iritzi argumentatuak ematea, besteenak errespetatuz eta ondare komuna aberastuz, egungo munduaren eta haren erronka eta gatazken testuinguruan eta ikuspegi sistemiko eta globaletik abiatuta.

**5.KONP.ESPE.:** Modu kritikoan aztertzea planteamendu historikoak eta geografikoak, komunitatean bizitzea arautzen duten sistema demokratikoen eta konstituzio printzipioen eraikuntza azalduz eta gure elkarbizitza esparruaren berezko eskubideak eta betebeharrak onartuz; hori guztia, herritarren parte-hartzea eta gizarte kohesioa sustatzeko.

**5.3.EBALU.IRIZP.:** Jarrera baketsuak eta errespetuzkoak erakustea, eta ulertzea arauak beharrezkoak direla elkarbizitzarako, gaitasun kritikoa agertuz eta bidegabekeria eta desberdintasun egoerak identifikatuz eta haiei modu asertiboan erantzunez.

**6.KONP.ESPE.:** Bizileku dugun errealitate kulturantza osatu duten prozesu geografikoak, historikoak eta kulturalak ulertzea, gure herrialdeko gutxiengo etnikoen historia eta kultura ezagutuz eta zabalduz eta berdintasunaren eta inklusioaren defentsarako mugimenduen ekarpena balioetsiz; hori guztia, estereotipoak gutxitzeko, diskriminazio eta indarkeria mota oro saihesteko eta aniztasunak dakarren aberastasunari antzemateko.

**6.1.EBALU.IRIZP.:** Aniztasun soziala eta kulturala baloratzea, inklusioaren alde argumentatuz eta esku hartuz eta jarrera edo jokabide diskriminatzaile oro, edo estereotipoetan oinarritutakoa, baztertuz eta borrokatuz.

**6.2.EBALU.IRIZP.:** Iraganean jazotako gizarte desberdintasunak eta aplikatu izan diren menderatze eta kontrol mekanismoak ezagutzea, jazarri eta isilarazi dituzten taldeak identifikatuta, eta emakumeen eta baztertutako beste kolektibo batzuetako pertsonaien presentzia nabarmenduta.

**7. KONP. ESPE.:** Norberaren eta besteen askotariko identitateen oinarriak identifikatzea, partekatzen dugun ondare materiala eta immateriala ezagutuz eta balioetsiz; hori guztia, hain zuzen, ondare hori gordetzeko eta pertinenentzia sentimenduak errespetatzeko, bai eta lurralde kohesioari eta elkartasunari laguntzen dioten prozesuak bultzatzeko ere, bat etorri europismoaren eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren balioekin.

**7.2.EBALU.IRIZP.:** Espainian garatu diren identitate kolektiboen jatorri historikoa identifikatzea, haiek nola erabili diren interpretatuz eta errespetua erakutsiz pertinenentzia zentzuekiko, uneoro sustatuz elkartasuna eta gizarte kohesioa.

**7.4.EBALU.IRIZP.:** Ondare artistikoa, historikoa eta kulturala baloratzea, babestea eta zaintzea, tokiko, autonomia erkidegoko, Espainiako, Europako eta mundu osoko identitate kolektiboaren oinarria dela ulertuta, eta jolas eta kultura gozamenerako iturria eta herrien garapenari laguntzen dion baliabidea dela aitortuta.

## OINARRIZKO JAKINTZAK

### A. GAUR EGUNGO MUNDUAREN ERRONKAK

**A.6.** Erronka demografikoak gaur egungo munduan. Kausalitatea eta alderaketa aniztasun sozial eta kulturalaren azterketan eta egitura demografikoen azterketan, hainbat eskalatan (tokikoa, eskualdekoa, herrialdekoa, Europakoa eta planetakoa).

**A.11.** Garapen Jasangarrirako Helburuak. Gaur egungo munduaren dilemak ikusaraztea, pentsamendu kritikorako eta iritzi propioak garatzeko abiapuntu gisa.

### C. KONPROMISO ZIBIKOA: TOKIKOA ETA GLOBALA

**C.2.** Alteritatea: bestea errespetatzea eta onartzea. Jokabide ezdiskriminatzaileak, edozein jarrera segregatzailearen aurkakoak.

**C.3.** Genero-berdintasuna. Adierazpen eta jokabide ez-sexistak.

**C.4.** Gaur egungo erronka eta arazoekiko interesa tokiko esparruan eta esparru globalean.

**C.6.** Elkarbizitza zibikoa eta cultura demokratikoa. Gizarte zibilean sartzea eta inplikatzeko prozesu demokratikoetan. Proiektu komunitarioetan parte hartzea.

**C.10.** Elkartasuna, enpatia eta ekintzak pobrezia, kalteberatasun eta gizarte bazterkeriako egoeran dauden kolektiboak laguntzeko.

Z E R U E R T Z



# Jardueraren deskribapena

## 1. FASEA. SARRERA (IRAKASLEEN ALDETIK)

Migrazioaren gaia aurkeztea, eta ikasleak motibatzea kultura-aniztasunaren garrantziaz eta horrek geografian eta historian duen eraginaz hausnartzera.

- Horretarako, irakasleak *DBHko ikasleekin kulturartean hezteko eta sentsibilizatzeko gida didaktikoan* oinarritu ahal izango dira ezagutza transferitzeko. Gida hori Zeruertz-eko taldeak egin zuen, ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz), 2022ko edizioan.

## 2. FASEA. IKASLEAK ELKARRIZKETARAKO PRESTATZEA

Fase honetan, irakasleek egin beharreko jarduera sartu beharko diete ikasleei; hau da, elkarrizketa bat egin beharko diete migratutako pertsonari. Ikasleek inguruko pertsona migratu bat elkarrizketatu beharko dute, gure eskumenekoak diren gaiei, beren jatorrizko herrialdeko geografiari eta historiari, migrazio-prozesuari eta Nafarroako harrerari buruz.

Elkarrizketa prestatzeko eta munduko herrialdeetan dagoen kultura-aniztasunari buruzko testuinguru bat sortzeko, ikasleek hainbat herrialdeetako bizitzaren eta kulturaren historia ikertu beharko dute, oro har, eta elkarrizketatutako pertsona migratuaren jatorrizko herrialdean, bereziki. Ekintza horrek aukera emango dio ikasleari irekitasun-posizio batean jartzeko, jakin-min-egoera bat sustatzeko, hurrengo zeregina errazteko, hau da, elkarrizketan adierazitako galderak egiteko.

## 3. FASEA. ELKARRIZKETA PERSONA MIGRATU BATI

Eskuratutako ezagutzatik abiatuta, ikasleek galdera-gidoi bat prestatu beharko dute elkarrizketa zuzentzeko. Aurkezpenaz, migratutako pertsonaren sarrera gisa, eta agurrez gain, elkarrizketatuari egindako ekarpena eskertzeko, besteak beste, historiari, kulturari, bizi-ohiturei eta kolektiboen arteko bizikidetzari buruzko galderak egingo dira elkarrizketaren gorputzean.

Ondoren, elkarrizketa hau egiteko laguntza eta adibide gisa, galderen zerrenda bat eskaintzen da [1. eranskinean](#), ikasleek, edozein ikasturtetan daudela ere, beren interesa eta lehentasuna kontuan hartuta, elkarrizketa gidatzeko orientabide bat aukeratu ahal izan dezaten.

#### 4. FASEA. ELKARRIZKETAREN AURKEZPENA IKASGELAN

Elkarrizketa egin ondoren, interesgarria izan liteke ikasgelan espazio bat bilatzea, esperientzia horien trukea eta ikasleen arteko elkarrizketen ondoriozko pertzepzioak sustatzeko. Horretarako, ebaluazio-modu gisa proposatzen da bai elkarrizketaren aurkezpena, bai hortik eratorritako esperientzia.

ZERUERTZ



---

# Baliabideak eta materialak

## BEHARREZKO BALIAKIDEAK

- Interneterako sarbidea eta ikerketa-materiala (irakasleek baloratu beharrekoa).
- Elkarriketak grabatzeko gailu elektronikoa, beharrezkoa bada, ondorengo aurkezpen-lana errazteko.

## IRAKASLEENTZAKO MATERIAL GEHIGARRIAK

- [Aula Intercultural](#)
- [Ministerio de Educación y Formación Profesional](#)

ZERUERTZ





# 1. eranskina. Eredugaldere zerrenda

1. Zergatik erabaki zenuen migratzea?
2. Zer erronka izan dituzu zure migrazio-esperientzian?
3. Nola aldatu da geografiaren eta historiaren mugaketari buruzko zure pertzepzioa leku berri batean bizitzean?
4. Aurreko garaietan ezagutu duzun migrazio-esperientziaren batekin alderatuta, identifika ditzakezu antzekotasunak edo desberdintasunak?
5. Zure ustez, zer ikas dezakegu migrazio-prozesu historikoetatik egungo migrazio-mugimenduak hobeto ulertzeko?
6. Zure ustez, nola eragin dute migrazioek historian zehar gizartearen eta kulturen eraketan?
7. Antzik edo desberdintasunik sumatu al duzu zure jatorrizko tokiko geografiaren eta migratu zenuen lekua artean, baliabide naturalei edo kokapen estrategikoari dagokienez?
8. Zure ustez, ezaugarri geografikoek, hala nola zure herrialdeko kokapenak eta klimak, nola eragin diote eskualde berrietan migratutako pertsonen egokitzapenari eta finkapenari?
9. Zer eginkizun izan du zure jatorrizko herrialdean baliabide naturalak izateak migrazio-ibilbideak zehazteko orduan?
10. Identifika ditzakezu historikoki migratuen jomuga izateko joera izan duten eskualde geografikoak?
11. Nola aldatu da gizarteek eta gobernuak historian zehar migrazio-fluxuei heltzeko izan duten modua?
12. Zer neurritan eta nola lagundu dute migrazio historikoek kultura- eta hizkuntza-aniztasunean?
13. Zure ustez, zer erronka ditu migrazioak globalizazioaren eta bat-bateko komunikazioen garaian?
14. Zure ustez, zer eragin izan dezake geografiak migrazio-mugimenduetarako oztopo fisikoak edo erraztaileak sortzean?
15. Zer eragin izan du migrazio- eta harrera-prozesuak zure nortasun pertsonalean eta kolektiboan?

ZERUERTZ

